



2024-25 ikasturteko memoria

012581 - Goierri Eskola Zentru Integratua

013541 - Goierri Eskolako Batxilergoa

An abstract graphic composed of several overlapping, semi-transparent 3D cubes or rectangular prisms in shades of light blue and grey, creating a sense of depth and geometric complexity.

2025eko
uztaila

AURKIBIDEA

1.	Urteko Plana.....	4
1.1.	Hezkuntza arautua	4
1.1.1.	Taldeen kopurua eta sailkapena	4
1.1.2.	Egutegia	5
1.2.	Lanerako eta etengabeko Hezkuntza	5
2.	Erakundearen egitura	7
2.1.	Gela eta Baliabide materialak	8
2.2.	Giza baliabideak	8
2.3.	PROZESUEN JARDUERA	12
2.3.1.	Estrategia Eraldatzailea	12
2.3.2.	Talentuaren kudeaketa	13
2.3.3.	Merkatuko definizio eta kokapena.....	14
2.3.4.	Hasierako Hezkuntza	15
2.3.5.	Lanerako eta Etengabeko Hezkuntza azpiprozesua	16
2.3.6.	Baliabide eta Aktiboen Kudeaketa	17
2.3.7.	Berrikuntza	18
3.	Bezeroenganako Emaitzak	19
3.1.	Hezkuntza Arautua.....	19
3.1.1.	Matrikulazioaren emaitzak.....	19
3.1.2.	Hezkuntza Arautuko emaitzak.....	19
3.1.3.	Grebak	20
3.1.4.	Satisfazioa.....	21
3.1.4.1.	Hezkuntza Arautuko ikasleen satisfazioa	21
3.1.4.2.	Familien satisfazioa	22
3.1.5.	Lanean txertatzea	23
3.2.	Hezkuntza ez arautua.....	24
3.2.1.	Kurtsoen kopurua.....	24
3.2.2.	Hezkuntza ez arautuko ikasleen satisfazioa	25
4.	Pertsonenganako emaitzak.....	25
4.1.	Pertsonen satisfazioa	25

5.	Kontseilu soziala eta eskola kontseilua	26
6.	Orientazio zerbitzua	27
6.1	LANBIDE - KOLOKAZIOA	27
6.2	ENPLEGU ORIENTAZIOKO EUSKAL ZERBITZUA (LANBIDE – ORIENTAZIOA)	27
6.3	ENPLEGU ZENTROA (2024/01/01 – 2027/09/26).....	27
6.4	INCORPORA PROGRAMA (2024/01/01 -2024/09/26).....	28
6.5	LEHENTASUNEZKO KOLEKTIBOAK LAN MUNDUAN SARTZEKO DITUZTEN ZAILTASUNENGATIK	28

1. URTEKO PLANA

1.1. HEZKUNTZA ARAUTUA

1.1.1. TALDEEN KOPURUA ETA SAILKAPENA

2024-2025 kurtzorako, ondorengo taulak jasotako talde kopurua izan ditugu:

Maila	Kurtsoa	Talde kopurua	Banaketa
OMLH FPB	1	4	Mekanizazioa Ibilgailuak konpontzea: Elektromekanika
	2	4	Ibilgailuak konpontzea: Karrozeria Sukaldaritza
ZIG	1	1	Zeregin Ikasketa Gela
EMHZ	1	4	1 Soldadura eta galdaragintza 1 Mekanika 1 Mantenu elektromekanikoa 1 Menpek.egoeran dauden pertsonen arreta
	2	4	1 Soldadura eta galdaragintza 1 Mekanika 1 Mantenu elektromekanikoa 1 Menpek.egoeran dauden pertsonen arreta
GMHZ	1	8	1 Administrazio eta finantzak 1 Diseinua fabrikazio mekanikoan 1 Mekatronika industriala 1 Metal Eraikuntzak 2 Fabr.Mek. produkzioaren programazioa 1 Automatizazio eta robotika industriala 1 Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
	2	8	1 Administrazio eta finantzak 1 Diseinua fabrikazio mekanikoan 1 Mekatronika industriala 1 Metal Eraikuntzak 2 Fabr.Mek. produkzioaren programazioa 1 Automatizazio eta robotika industriala 1 Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena
Espezializazio Ikastaroak	1	1	Trenbidetako materialen mantentze-lan aurreratuen espezializazio-ikastaroa
Batxilergoa	1	3	Zientzia eta teknologia Batxilergoa 2 Batxilergo orokorra 1 (LOMLOE)
	2	3	Zientzia eta teknologia Batxilergoa 2 Batxilergo orokorra 1 (LOMLOE)

1.1.2. EGUTEGIA

Hezkuntza arautuaren jarduerari dagokionez, honako egutegia onartu zen:

Egun lektiboak	165
Kurtsoaren hasiera	Irailaren 5-tik
Kurtsoaren amaiera	Ekainaren 18ra
Jai egunak:	✓ Kurtso hasiera irailaren 6a ✓ Azaroaren 1a: Santu guztien eguna. ✓ Abenduaren 6a: Konstituzio eguna. ✓ Abenduaren 22a: 12ak arte lan eguna. ✓ Abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra: eguberriak. ✓ Martxoaren 3a; inauteriak. ✓ Apirilaren 14tik 25era: aste santua. ✓ Maiatzean, 1a; langileen eguna ✓ Maiatzean, 2a; zubia. Ekainaren 2 eta 3a: Beasaingo festak.

1.2. LANERAKO ETA ETENGABEKO HEZKUNTZA


Ondorengo taulak lanerako eta etengabeko hezkuntzari buruzko informazioa bildu du: aurreikusitako kurtsoen antolaketa, iraupena eta datak, prezioa eta gauzatze - maila.

IKASTAROA	Iraup.	Data	Ordutegia	Prezioa	Gauzat.
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK / ADMINISTRACIÓN Y FINANZAS					
Kontratuak, nominak, kitatze-agiria eta gizarte segurantzak Contratos, nóminas, finiquitos y seguridad social	40	2025/05/05 2025/05/29	17:30-20:00	---	✓
AUTOMATIZAZIOA ETA MAKINA ELEKTRIKOAK/AUTOMATIZACIÓN Y MAQUINAS ELECTRICAS					
Oinarrizko elektrizitatea Electricidad básica	20	2025/02/10 2025/02/20	17:30-20:00	---	✓
Hidraulika Hidráulica	40	2025/05/05 2025/05/29	17:30-20:00	---	✗
Mantenu elektromekanikoa Mantenimiento electromecánico	50	2025/05/05 2025/06/10	17:30-20:00	---	✗
4.o INDUSTRIA/INDUSTRIA 4.o					
3D Inprimaketa Impresión 3D	10	2025/05/12 2025/05/15	17:30-20:00	---	✓
PLANOEN INTERPRETAZIOA ETA INDUSTRI DISEINUA/INTERPRETACIÓN DE PLANOS Y DISEÑO INDUSTRIAL					9
CAD 3D: Solidoen eta multzoen modelaketa. Planoen sorkuntza Solidworks CAD 3D Modelado de sólidos y conjuntos. Generación de planos Solidworks	40	2025/05/05 2025/05/29	17:30-20:00	---	✓
Diseinu industrialak Katiarekin Diseño industrial con Catia	40	2025/04/29 2025/05/26	17:30-20:00	---	✗

IKASTAROA	Iraup.	Data	Ordutegia	Prezioa	Gauzat.
Bisten/ebakiduren I planoen interpretazioa Interpretación de planos I vistas/cortes	40	2025/05/05 2025/05/29	17:30-20:00	---	✗
ENTSEGU EZ SUNTSITZAILEAK / ENSAYOS NO DESTRUCTIVOS					
Likido Sarkorrak 2.Maila Sarbide Zuzena Líquidos Penetrantes Nivel 2 Acceso Directo	40	2024/09/16 2024/09/27	08:00-12:00	695€	✓
Ikuskapen bisuala 2.Maila Sarbide Zuzena Inspección Visual Nivel 2 Acceso Directo	40	2024/09/16 2024/10/01	15:00-19:00	760€	✓
Partikula Magnetikoak 2.maila Sarbide Zuzena Partículas Magnéticas Nivel 2 Acceso Directo	48	2024/10/07 2024/10/17	08:00-14:00	830€	✓
2. mailako Ikuskapen Bisuala berritzea/berregiaztapena (VT2) Renovación/recertificación Inspección Visual nivel 2 (VT2)	20	2024/11/11 2024/11/14	15:00-20:00	500	✓
2. mailako Partikula Magnetikoak berritzea/berregiaztapena (MT2) Renovación/recertificación Partículas Magnéticas nivel 2 (MT2)	20	2024/11/18 2024/11/22	08:00-13:00	750	✓
Ikuskapen bisuala 2.Maila Sarbide Zuzena Inspección Visual Nivel 2 Acceso Directo	40	2025/01/13 2025/01/28	15:00-19:00	760€	✓
2. mailako Ikuskapen Likido sarkorrak berritzea/berregiaztapena (PT2) Renovación/recertificación Líquidos Penetrantes nivel 2 (PT2)	20	2025/02/03 2025/02/06	08:00-13:00	550	✓
Likido Sarkorrak 2.Maila Sarbide Zuzena Líquidos Penetrantes Nivel 2 Acceso Directo	40	2025/02/10 2025/02/20	09:00-14:00	695€	✓
Likido Sarkorrak 2.Maila Sarbide Zuzena Líquidos Penetrantes Nivel 2 Acceso Directo	40	2025/02/10 2025/02/20	09:00-14:00	673€	✗
Ultrasoinuak 2.maila Sarbide Zuzena Ultrasonidos nivel 2 acceso directo	144	2025/02/24 2025/04/07	08:00-14:00	3480€	✓
2. mailako Partikula Magnetikoak berritzea/berregiaztapena (MT2) Renovación/recertificación Partículas Magnéticas nivel 2 (MT2)	20	2025/05/05 2025/05/08	08:00-13:00	500	✗
Partikula Magnetikoak 2.maila Sarbide Zuzena Partículas Magnéticas Nivel 2 Acceso Directo	48	2025/05/12 2025/05/22	08:00-14:00	830€	✓

2. ERAKUNDEAREN EGITURA

Ondorengo diagramak Goierri Eskolako egitura azaldu du, bezeroenganako orientazioa, Kudeaketa Unitateetako antolaketa eta prozesuen bidezko kudeaketa bertan agerian jarri direlarik:



Antolaketaren irteeran bezeroak ditugu (ikasleak, familiak, enpresak, eta abar) eta hauekin harreman zuzenean Kudeaketa Unitateetan banaturiko irakasle eta ez – irakasleak. Guzti hauen beharrei erantzuteko prozesu multzoa dugu. Prozesu hauetako arduradunek Zuzendaritza osotzen dute. Urteko Planen garapena prozesu hauen bitartez egiten da eta haiek lortutako emaitzak Kokapen Estrategikora bideratzen dira Plan eta Estrategia berriak defini ditzan.

Aipatu antolaketak hiru helburu hauek ditu:

- Bezeroen beharrei modurik egokienean erantzun.

- Lidergo partekatua garatu, pertsona bakoitzak bere zereginaren erantzule izanik eta erabakiak hartzeko askatasuna bermatuz, beti ere arau, plan eta prozesuek diotena bermaturik.
- Prozesuen bitartez Helburu Estrategikoen hedapena ziurtatu.

2.1. GELA ETA BALIABIDE MATERIALAK

Aipatu aktibitate guzti horri aurre egiteko, ondorengo azpiegituraz baliatu ginen:

Baliabideak	Kopurua	Oharrak
Gela Arruntak	28	
Informatikako Gelak	7	6 CAD-CAM, CATIA, CNC. 2 Automatismoak.
Metrologia laborategia	1	
Soldadura laborategia	2	1 Ultrasoinuak. 1 partikula magnetikoak
Mekanikako tailerrak	3	1 Mantenimendua, 1 CNC, 1 tailer konbentzionala
Soldadura tailerra	1	
Galdaragintzako tailerra	2	
Elektrizitateko tailerra	2	
Neumatika/hidrauliko tailerra	1	
Mediateka	1+3	1 talde lanetarako gela handi. 3 talde lanetarako gela txiki.
Mediateka informatika	1	15 PC + 3 PC eramangarri
Areto Nagusia	1	165 lagunentzako
Bilera gelak	3	
Bilera gelak	11	
Gela inmersiboa	1	
Gela interaktiboa	1	
Eduki digitalak sortzeko gela	1	
Gela aurreratua	1	

2.2. GIZA BALIABIDEAK

Aurreko aktibitatea gara ahal izateko ondorengo giza baliabideak aurreikusi ziren:

Taldea	Kopurua	Azpitaldea	Kopurua
Irakasleak	74		
Ez irakasleak	13	Idazkariak	3
		Mantenimendua	3
		Mantenimendu informatikoa	1
		Administrazioa	2
		Orientazio eta enplegu zerb.	3
		Harrera	1

Eta pertsona horiek horrela antolatu ziren Kudeaketa Unitateetan:

Kudeaketa Unitatea	Pertsonak	Kargua
Hasierako Lanbide Heziketa	Eguzkiñe Plazaola	Unitate Burua
	Maite Erauskin	Irakaslea
	Imanol Aranburu	Irakaslea
	Iñaki Mauleon	Irakaslea
	Xabier Tolosa	Irakaslea
	Axel Mendiluze	Irakaslea
	Pedro Angel Llamas	Irakaslea
	Itxaso Orbegozo	Irakaslea
	Pablo Zubia	Irakaslea
	Eider Urriza	Irakaslea
	Maialen Ezeizabarrena	Laguntzailea ZIG
Administrazio eta Finantzak	Miren Ojanguren	Unitate Burua
	(Garitagoitia Lorea) Aitor Navarro	Irakaslea
	Maider Mora	Irakaslea
	(Hodei Sagarzazu) Janire Ugarte	Irakaslea
	Ainhoa Larrea	Irakaslea
	Miren Etxeberria	Irakaslea
	Amaia Odriozola	Irakaslea
Elektrizitatea	Iñigo Palomo	Unitate Burua
	Eneko Mujika	Irakaslea
	Joseba Barandiaran	Irakaslea
	Iñaki Kortaberria	Irakaslea
	Iñaki Zabalo	Irakaslea
	Estebe Ormazabal	Irakaslea
	Joseba Ramos	Irakaslea
	Ander Madinabeitia	Irakaslea
Eraikuntza metalikoak	Adur Leunda	Unitate Burua
	Mikel Iparragirre	Irakaslea
	Miren Iartza	Irakaslea
	Xabier Zunzunegi	Irakaslea
	Jon Etxezarreta	Irakaslea
	Jon Leunda	Irakaslea
	Mikel Agirre	Irakaslea
	Sara Muñoz	Irakaslea

Kudeaketa Unitatea	Pertsonak	Kargua
Mekanika	Miguel Angel Cestau	Unitate burua
	Kattalin Beitia	Irakaslea
	Haritz Erauskin	Irakaslea
	Juan Cruz Eceiza	Irakaslea
	Jose Manuel Hernandez	Irakaslea
	Mikel Arizkorreta	Irakaslea
	Joseba Iztueta	Irakaslea
Ingeniaritza	Jose Ignacio Vicente	Unitate burua
	Ramon Aldanondo	Irakaslea
	Aitor Zuriarrain	Irakaslea
	Jon Otegui	Irakaslea
	Ane Iñurrieta	Irakaslea
Batxilergoa	Idoia Otaegui	Unitate Burua
	Ruben Sorazu	Irakaslea
	Jose Ignacio Insausti	Irakaslea
	Imanol García	Irakaslea
	Julian Olano	Irakaslea
	Olatz Lasa	Irakaslea
	Mikel Imaz	Irakaslea
	Aitor Zunzunegi	Irakaslea
	Elorri Ramirez	Irakaslea
	Maddi Urdangarin	Irakaslea
	David Señorán	Irakaslea
Orientazioa	Mikel Azkarate	Orientatzailea
Zuzendaritza	Carlos Ormazabal	Fundazioko Gerentea
	Jorge Mancisidor	Zuzendari Exekutiboa
	Mikel Azkarate	Zuzendari Operatiboa
	Luis Alberto Aramburu	Estrategia Zuzendaria
	Iker Etxezarreta	Dual Arduraduna
	Jose Mari Alkorta	Aldaketa Bultzatzailea
	Juanjo Igarzabal	Berrikuntza Zuzendaria
	Alazne Ormazabal	Administrazioko arduraduna

Zuzendaritza kontseilua	Jose Inazio Insausti	Unitate Burua
	Eguzkiñe Plazaola	Unitate Burua
	Adur Leunda	Unitate Burua
	Miren Ojanguren	Unitate Burua
	Iñigo Palomo	Unitate Burua
	Miguel Angel Cestau	Unitate Burua
	Estitxu Urkia	Unitate Burua
	Jose Ignacio Vicente	Unitate Burua
	Luis Alberto Aramburu	Estrategia Zuzendaria
	Alazne Ormazabal	Arduradun Ekonomikoa
	Mikel Azkarate	Zuzendari Operatiboa
	Jorge Mancisidor	Zuzendari Exekutiboa
	Jose Mari Alkorta	Aldaketa Kudeatzailea
	Juanjo Igarzabal	Berrikuntza Zuzendaria
	Iker Etxezarreta	Dual Arduraduna
	Carlos Ormazabal	Fundazioko Gerentea
	Xanti Iruretagoiena	Ikaslango Zuzendaria
Eskola Kontseilua Lanbide Heziketa	Zentro Integratua izanik, Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik eskatu ziguten Kontseilu Soziala oraindik ez eratzeko, itunpeko ikastetxeetako Kontseilu Soziala arautu behar duen dekretua argitaratu arte. Ikasturte osoa joan da eta oraindik ez da argitaratu.	Gurasoen ordezkaria
		Gurasoen ordezkaria
		Gurasoen ordezkaria
		Ikasleen ordezkaria
		Ikasleen ordezkaria
		Titularraren ordezkaria
		Titularraren ordezkaria
		Titularraren ordezkaria
		Irakasleen ordezkaria
		Irakasleen ordezkaria
		Irakasleen ordezkaria
		Ez irakasleen ordezkaria
Eskola Kontseilua Batxilergoa	Jorge Mancisidor	Zuzendaria
	Luis Alberto Aramburu	Idazkaria
	Mikel Mendizabal	Gurasoen ordezkaria
	Zohargi Sasiain	Ikasleen ordezkaria
	Sadio Traoré	Ikasleen ordezkaria
	Kepa Zuriarrain	Titularraren ordezkaria
	Adur Ezenarro	Titularraren ordezkaria
	Mikel Plazaola	Titularraren ordezkaria
	Olatz Lasa	Irakasleen ordezkaria
	Mikel Imaz	Irakasleen ordezkaria
	Jose Inazio Insausti	Irakasleen ordezkaria
	Ruben Sorazu	Irakasleen ordezkaria
	Maribi Arina	Ez irakasleen ordezkaria

2.3. PROZESUEN JARDUERA

Ondorengoek prozesu bakoitzaren jarduerak eta hurrengo ikasturterako aurreikuspenak laburbildu dute:

2.3.1. ESTRATEGIA ERALDATZAILEA

Estrategia, urteko planak eta adierazleen kudeaketarako SIP erreminta erabiltzen jarraitzen dugu.

Prozesu honetako lorpen nagusia 2025-2028 estrategiak definitzea izan da. Horretarako definituta dugun prozedurari jarraituz, barne eta kanpoko testuinguruaren analisia burutu dugu; horretarako honakoak egin ditugu, besteak beste:

- Zuzendaritza Kontseiluko kideei estrategiek zein erronkei erantzun behar dieten galdetu.
- Aurreko estrategien lorpen maila neurtu.
- Prozesuen memoriak aztertu.
- Inkesten emaitzak aztertu.
- Adimen lehiakorreko ekarpenak baloratu.
- Legedian dauden aldaketak aztertu.
- Kanpoko eta barruko interes-taldearen behar eta itxaropenak arakatu.
- Joerak aztertu: lan-merkatua, demografia, lehiakideak...
- Bikaintasun ereduaren araberrako autoebaluazioa (agenteak).
- ...

Horrekin guztiarekin AMIA definitu dugu, bai eta Aukeren eta Arriskuen ebaluazioa egin ere. Uztailean lehen estrategikoak aurkeztu genituen.

Bestetik, gure arautuko eskaintzari eutsi izan diogu, aurreikusitako taldeak mantendu ditugularik (2025-2026 ikasturteko matrikulazioa aurten ere balio gorenekin itxi da). Hezkuntza ez arautuan, berriz, ez dugu lortu %5eko sarreraren igoera. Landunei zuzendutako eta enpresen neurrirako formazioek oso emaitza baxutan jarraitzen dute.

Nahiz eta C graduaren eskaera egin genuen, Administrazioak ez zigun onartu (berriki eskaera egindako beste ikastetxei bezalaxe). Hurrengo ikasturteari begira, abendu aldean C graduak emateko eskaera luzatuko diogu administrazioari.

Gure itunkideen kudeaketan sakondu behar dugu. 2025ean Goieki/Lortek/Fundazioa bilerak eten egin ziren Lortekek izandako zuzendariaren aldaketaren ondorioz. 2025eko Irailetik aurrera bileren dinamika berreskuratu dugu.

Ez da Udalekin elkarlana burutu etorkinei zuzendutako zerbitzuaren (plan espezifikoaren) garapenerako. Hala ere, Elkar Ekin Lanean sarean parte hartzen jarraitu dugu.


Antolaketa egitura berrien ezarpenarekin jarraitu dugu, baina oraindik ez dugu amaitu.

Adimen Lehiakorrari dagokionean, prozedura definitu dugu eta INTOOL erreminta erabiltzen jarraitu dugu, baina bere garapenean jarraitu beharko dugu 2025-2026 ikasturtean ere.

Azkenik, gure estrategien eta planen hurbileko segimenduaren sistematikan sakondu egin behar dugu.

2.3.2. TALENTUAREN KUDEAKETA

Prozesu honetako helburu gehienak, pertsonalaren satisfazioarekin erlazionatuta daude. Honekiko geneuzkan helburuak lortu izan dira. Aurreko urtekoarekiko, honela aldatu dira:



Prozesuaren helburuekiko, Komitearekin elkarlanean jarraitzen dugu, ikasturtean zehar bilerak maiz egin ditugu behar diren gaietan adostasunera iritsiz.

Ikasturte honen hasieran, Berdintasun Planaren berritzearekin bukatu genuen, Berdintasun Plana borobilduz. Horrekin batera, hainbat protokolo burutu genituen, langilegoari dagokionez: Berdintasun Plana 2024.

Jazarpen protokolo orokorra (bertan, kolektibo desberdinetako protokoloekin bateratutako bat diseinatu genuen: Jazarpen orokorra, LGTBQ+ eta Trans kolektiboekikoa).

Era berean, intranetean, pertsona guztiek protokolo hauek eta aurretik geneuzkanak erraz aurkitzeko, "Planak eta Protokoloak" deritzon gune bat ireki genuen, eta bertan dokumentazio guztia bildu:

- Goierri Autobabes Plana 2024
- Jazarpen protokolo orokorra.
- Berdintasun Plana 2024.
- Salaketaren kanala.
- Deskonexio digitala eta telelana.
- SOI – dekalogo.

Plan hauen ondorioz, pertsonen hautaketan, formazioan eta informazioan hainbat ekintza burutu dira urteko planari jarraituz.

Pertsonen kudeaketarako modu integral batean lana egiteko, "Grupo Castilla"-k eskaintzen duen aplikaziora migratzen joan gara. Aurretik erabiltzen genuen nominen kudeaketarako. Kurtsoan zehar, kompetentzien ebaluaketa egiteko duen aplikazioa adaptatzen joan gara, formazioaren kudeaketarako duena ere, eta baita jardueraren erregistroa egiteko antolaketa ere. 2025/26 ikasturtean guzti hauek indarrean izatea da helburua.

Ikasturte honetan ere, baja dezente izan baititugu. Aitatasun/amatasun batak luzatu dira eta bestelakoak ere kudeatzeko gora beherak izan ditugu. Hala ere, ordezkatu dira denboran guztiak eta lortu da aktibitatea mantentzea.

Formazio plana aurkezteko eta lehentasunen arabera erabakiak hartzeko prozesua mantentzen da eta Zuzendaritza Kontseiluan berriro ere azaldu eta aplikatu da. Inbertsioekin egiten dugun moduan, Prozesu eta KU-etako eskaera guztiak jasotzen dira formulario baten bitartez eta Zuzendaritza Kontseiluan lehentasunen arabera urteko plana onartu da.

Lanerako eta Etengabeko Hezkuntzan, espezialista sarea izateko bilaketarekin jarraitzen dugu. Egia da lortzen ditugula momentuko irakasleak baina sarea zabaltzen eta egonkortzen jarraitu beharrean gaude, END eta Elektrizitateko arloetan bereziki.

2.3.3. MERKATUKO DEFINIZIO ETA KOKAPENA

Matrikulazio datuak.

Goierri Eskolako Lanbide Heziketako eskaintzan, azken urte hauetan martxan jarri den eskaintza berria egonkortze bidean dagoela aipatu daiteke.

Informatika alorrean, Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena izeneko zikloan matrikulazio datuak positiboak izan dira (18 ikasle izango direlarik).

Antzeko gauza esan daiteke Espezializazio Ikastaroen barruan eskaintzen den Trenbideetako Mantentze Aurreratua deritzon zikloan, 15 ikasle matrikulatu direlarik.

Matrikulazio datuei begiratuz, datuak egonkorturik ditugula aipatu daiteke. Lehen mailako matrikulazio berrietan, batxilergoan iazko 97tik aurtengo 105ra igaro gara. Aldiz, lanbide heziketan, iazko 335tik aurtengo 341ra igaro gara.

Denera, Lanbide Heziketan 638 ikasle ditugu (iaz 640 ikasle) eta batxilergoan 201 ikasle (iaz 184).

Aipatzekoa da, bestalde, ZIG etapako ikaslegoaren gorakada (datorren 25/26rako 11 ikasle ditugularik).

Guzti hauei Ingeniaritzako ikasleak batu ezker, guztira 1004 ikasle ditugu Goierri Eskolan.

Marketing kanpaina.

Matrikulazio datu hauek lortze aldera, hainbat kaptazio kanpaina burutu dira.

Aipatzekoa da Altsasuko Iñigo Aritza ikastolak bere ateak itxi dizkigula, bertan ohikoak ziren hitzaldiak eskaintzeko aukera baztertuz.

Marketing kanpaina horren barruan, ospatzen ditugun ate-ireki jardunaldiak arrakastatsuak izan dira.

Lanbide Heziketako ate irekietan, 550 pertsona izan ziren bisitan (guraso eta ikasle potentzialen artean).

Aldiz, batxilergoan, 297 pertsona izan ziran. Nabarmentzekoa batxilergoko ikasle potentzialen gorakada.

2024 urteko 48 ikasletik, aurtengo 135 ikaslara pasa garelarik.

Ez-arautuko formazioa: langileak eta langabetuak.

Langile eta langabetuen formazioaren alorrean, ohiko merkaturatzea burutu den arren, emaitzak ez dira nahi bezain onak izan. Kezkagarriak dira eta datorren 25/26 ikasturtean hainbat ekintza burutu beharko dira alor hau indartze aldera.

Ingeniaritza eta master eskaintza.

Ingeniaritzari loturiko eskaintzaren barruan, iaz bezela, IWE eskaintza aurrera ateratzea lortu den arren (10 ikasle), ez da gauza bera gertatu Fabrikazio Gehigarriko masterrarekin. Beraz, eskaintza iazko bera mantentzen da.



Bestelako ekimenak.

Goierri Eskolaren zerbitzuen eskaintzaren barruan, Saiakuntza ez-suntsitzaileen (SES) inguruko formakuntza eta zerbitzuak eskaintzen jarraitu dugu.

SES zerbitzuak, Ingeniaritza edota Master-eko eskaintza merkaturatze aldera, aurten Irungo FICOBAn ospatu den UNIRE azokaren II edizioan hartu da parte, Lanbide Heziketako ikastetxe bakarra izan garelarik bertan stand propioa ipini duena. Soldadura alorrari loturiko feria izanik, Goierri Eskola alor horretan ezagutaraztea izan du helburu.

Prozesuen arloan, Goierri Valley eta Goieki erakundeetako lan-talde desberdinetan parte hartu da, bailarako enpresa eta elkarte desberdinen beharrak identifikatu eta asetu asmoz, elkarlan ekintzat gauzatu asmoz.

Bestalde, administrazio eta zerbitzuetako alorraren digitalizazioa garatzeko pausoak landu dira, matrikulazio prozesuaren hainbat ildo digitalizatuz.

2.3.4. HASIERAKO HEZKUNTZA

24/25 Ikasturtean helburu dezente bete dira, bereziki digitalizazioan, internazionalizazioan, ETHAZI ereduan eta berdintasunezko ekintzetan. Hala ere, zenbait hutsune nabarmendu dira: STEAM tailerrak bailarako ikastetxeetan berreskuratzea, Aprestizai eta zerbitzuak jardueren erregistro sistematizatua, mugikortasun APParen garapena eta ekonomia zirkularraren txertaketa osoa.

Jatorrizko ikastetxe jarraipenaren, eta bertatik ikasleen informazio jasotzeko helburuarekin, Etxarriko Andra Mendi ikastolarekin bilerak egin dira, eta bertatik datozen ikasleen orientazio-lana planifikatu da. Altsasuko ikastetxearekin harremana ez da gauzatu, herrian gure eskolarekiko begirune gehiegi dagoen zurrumurruagatik, eta hori mozteko asmoz, eskolen arteko elkarlana zaildu du.

Komunitate alorrean aldiz, STEAM tailerrak bailarako ikastetxeetan ez dira berreskuratu, nahiz eta ikasleekin egindako erronka asteak esperientzia aberasgarria izan. Aprestizai eta zerbitzu erregistro sistematikoa ez da sortu, baina proiektu interesgarriak gauzatu dira: voley makina, Etiopia Utopiarentzako trilladora eta laino-uretatik ura biltzeko instalazioa, besteak beste. Hala ere, ekimen horiek jarraipen metodologiko sendoagoa eskatzen dute.

Ikasleei hezkuntza integrala eman nahian hainbat ekintza egin dira. Alde batetik arrakastatsuak izan den SOI jardunaldiak (22 ekintza eta 1300 ikasle baino gehiago parte hartuta), boluntariotza hitzaldiak eskaini dira, bestetik, bi odol-emate saio antolatu dira. Aldiz, mugikortasunari buruzko APP proiektua eta behar-eskaintza inkestak ez dira gauzatu. Ikasketa arautik kanpo, Euskarazko klaseak, metal munduan behar diren hainbat makinaren erabilpenerako titulua lortzeko aukera, janari manipulaziorako karneta, elkartrukaketa e.a.

Irakaskuntza eta tutoretza alorrean Irakasleen digitalizazio formakuntza eskaini da (AA, SET eta Classwork tresnetan), eta dual jarraipen prozedura eguneratu da. Ikasleen banakako proiektuak eguneratu dira, nahiz eta app propioa garatzeko ahalegina ez den gauzatu. Enpresei zuzendutako informazio-triptikoak egin dira eta ikasleen interesak jasotzeko prozedura eguneratu da.

Internazionalizazio esparruan, Erasmus programa eskolako egutegira egokitu da, eta 11 ikaslek atzerrian esperientzia izan dute. Gainera, SEPIE bekak lortu dira eta ikasleen egutegia bateratu da, internazionalizazioari eusteko baldintza egokiak sortuz.



Curriculum berrikuntzan, digitalizazio, Jasangarritasun eta Enplegarritasun moduluak diseinatu dira. ETHAZI eredu hiru ziklotan berritu da: sentsibilizazio lanak egin dira, konpetentziak eta lorpen-adierazleak definitu dira eta ikaskuntza estrategiak finkatu dira. Eskolak zeharkako gaitasunak egutegi berrira egokitu ditu eta intranetean txertatu ditu.

Irakasleen prestakuntzan, helburuetako bat, irakasle guztiek EOP formakuntza egitea hiru urteren buruan; aurtun lau irakasle egin dute. ELU formakuntza ez da gauzatu, irakasle berrien lan-kargagatik, baina DIGI formakuntza eskaini da eta zenbait irakasle burutu dute.

Kudeaketa eta antolaketa esparruan eskolako kultura prebentiboa indartzeko, gailu digitalen erabilerari buruzko araudia sortu da. Ekonomia zirkularra barneratzeko urratsak egin dira, nahiz eta barne-ikuskapenetako check-lista eguneratu gabe dagoen. Digitalizazioan, SET tresna ziklo batean txertatu da eta bestean bere erabilera ezagutzen hasi. Gehien zabaltzen ari den erraminta teams eko trabajo de clase modulua da. EVAren erabilera berrantolatu da, Batxilergoan soilik mantenduz.

Berdintasunaren arloan, azaroaren 25ean eta martxoaren 3an sentsibilizazio jardunaldiak burutu dira, eta ikasturte amaieran Gizonduz ikastaroa gauzatu da.

2.3.5. LANERAKO ETA ETENGABEKO HEZKUNTZA AZPIPROZESUA

Lehenengo helburua emaitza ekonomikoa %5ean igotzea izan zen eta 2023an lortu bazen ere, ez da 2024ean beste horrenbeste lortu. Esparru honetan aurreikusitako ekintzak burutu baditugu ere, lanean ari direnei zuzendutako aktibitatea ez da behar bezala gauzatu eta ikasturte honetan neurrirako formazioak ere beherakada nabarmena izan du.

Langabetuei zuzendutako formazioari dagokionean emaitzak onak izan dira orokorrean, aktibitatearen gauzatzeari dagokionez: deialdiko ikastaro guztiak aurrera atera ditugu eta ikasleen %100entzako epe barruan praktikak kudeatu dira. Etorkinei zuzendutako gure eskaintza, beraz, gauzatu dugula baloratu dugu, Lanbiderekin egindako ekintzez gain Elkar Ekin Lanean sarean parte hartu dugu eta. 2025-2026 ikasturteari begira, gure instalakuntzetan Sukaldaritzako ikastaro bat burutuko da, Goiekik gure gomendioaren aurka Ziurtagiri Profesionala ez izatea erabaki zuena.

SES esparruaren garapenari dagokionean, gure ikasle batek MT2 zertifikatua lortu du eta 3. Mailako "Conocimientos básicos" ikastaroa ere burutu du, 2025/2026ean 3. Mailako ziurtagiriak lortzeko lehen urrats modura. Beste irakasle batek "Phased Array" ziurtagiria ere lortu du.

SES esparruaren eskaintzari dagokionean REN/REC (berriztatze, errezertifikazio) ikastaroak eskaintzen hasi gara eta etorkizunean aktibitatea areagotzeko balioko digula espero dugu. Phased Arrayko ikastaroetarako materialaren garapenarekin jarraitzen dugu.

4.0 ikastaroen eskaintzari dagokionean, IRIZAR enpresari zuzendutako formazioa beste behin martxan izan dugu eta oraingoan ChatGPT-ri buruzko formazioa txertatu dugu bertan.

2025-2026ean HEZILAN aplikazioa LHK aplikazioaz erabat ordezkatzea lortu dugu.

Aurtun, bosgarren aldiz, irakasleei haien asebetetze-mailagatik galdetu zaie. Emaitzak bikainak izan dira. Hala ere, erantzun-maila kontuan izan behar dugu: (4 erantzun izan dira, 9 posibleetatik).

Kontratazio prozesua	5,00/5
Lanposturako harrera	5,00/5
Bulego akademikoarekin erlazioa	5,00/5
Klasea emateko baliabideak	4,75/5
Klaseak emateko jasotako laguntza	5,00/5

Lan baldintzak	4,75/5
Goierri Eskolarekin izandako esperientzia, orokorrean	5,00/5

Bi atal dira azpimarragarriak:

- Erantzun-kopurua jaitsi egin zaigu: iaz erantzun posibleen %59 izan genituen eta aurtun %50a.
- Item guztietako emaitzek beraien balioa mantendu edo igo egin dute eta 7 itemetatik Setan puntuazio maximoa eskuratu dugu.

2.3.6. BALIABIDE ETA AKTIBOEN KUDEAKETA

Lehenengo BAK prozesuan ezarritako 7 helburu nagusien betetze-maila desberdina izan da, baina oro har aurrerapen nabarmenak lortu dira.

Lehen helburua, Goierri Eskolako aktibitate ekonomiko jasagarria izatea ziurtatzea, maila onean bete da. Gastu eta inbertsioen kontrola indartu da Business Central eta Power BI bidez, eta horrek gardentasun handiagoa eman dio baliabideen erabilerari. Gainera, auto-hornidura energetikoan urrats handiak egin dira: 3. eraikinean eguzki panelak instalatu eta martxan jarri dira, eta honek energia kontsumo propioa handituko du epe ertainera. Etorkizunera begira, energiaren monitorizazioa eta domotika sistemak gehitzea aurreikusten da, jasagarritasun ekonomiko eta energetikoa sendotzeko.

Bigarren helburua, ikasleen sentsibilizazioa eta GJHen integrazioa, aurrera eramaten ari da. Ikasleek GJHen inguruko jardunaldi eta erronketan parte hartu dute, eta eskola erreferente gisa kokatzen joateko bidean dago.

Hirugarren helburua, pertsonen ongizatea eta arrisku psikosozialen prebentzioa, jarraipen sistematiko baten bidez bideratu da. Laneko arriskuen ebaluazioak, zarata eta kutsatzaileen neurketak eta prebentzio-formazioak burutu dira. Istripu-kopurua txikia izan den arren (langile baten istripua eta ikasleen 13 istripu), prebentzio-neurriak indartzen jarraituko da.

Digitalizazioari dagokionez (laugarren helburua), aurrerapausoak eman dira Business Central eta ODOOren erabileran, mantenuaren eta eragiketen kontrola hobetzeko. Citrix sistemaren murrizketa eta Grupo Castilla softwarearen ezarpena ere nabarmendu behar dira. Hala ere, "control operacional" sistemaren ordezkapena oraindik osatu gabe dago, eta hurrengo ikasturteetarako helburu nagusi izaten jarraitzen du.

Beste helburu batzuetan ere aurrerapenak egon dira: ziklo berrietarako guneak egokitu dira (1116 eta 1117 gelak), eta bak infor zerbitzuaren erabiltzaileen satisfazioa hobetu da, nahiz eta oraindik KU batzuetan maila apalagoa mantentzen den. Segurtasunari eta ingurumenari lotutako helburuetan ere lan egin da: prebentzio-zerbitzuak sendotu dira, zarata eta kutsatzaile kimikoen neurketak egin dira, eta 3. eraikinaren energia-ziurtagiria berritu da. Gainera, mugikortasun jasagarriaren inguruko galdetegia egin eta ekintza-planaren lehen urratsak definitu dira.

Arlo ekonomikoari dagokionean, helburuen betetze-maila orokorrean positiboa izan da. Urteko emaitza ekonomikoa positiboa izan da (248.614 €), aurreko urteko bilakaera negatiboa gaindituz. Inbertsioetan 368.195 €-ra iritsi da, aurreikusitako helburua gaindituz, eta horietatik zati handi bat Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzekin finantzatu da. Enpresen eta udalen ekarpenetan egokitzapenak egin dira, kooperatiben ekarpenak berreskuratzeko bidean.

Bestalde, formazioari dagokionez, aurrekontua gainditu da (20.000 €-tik gora), eta instalazio eta zerbitzuen erabileratik 50.000 €-tik gorako sarrerak lortu dira. Dokumentu kudeaketan, ordea, Navision berrira migratu ostean Document Capture sistema ez da ezarri, eta helburu hori hurrengo ekitaldira

atzeratu da. Likidezia eta kaudimen ratioek jaitziera izan dute (2,66), baina oraindik balio positiboetan daude, erakundearen jasagarritasuna bermatuz.

Laburbilduz, helburu nagusien gehiengoa bete da eta hainbat esparrutan aurrerapen nabarmenak egin dira. Zailtasunak nagusiki informatika eta dokumentazio kudeaketan antzeman dira, baina joera orokorra positiboa da, eta datorren ikasturterako helburuetan jarraipen zorrotza eta hobekuntza ekintzak aurreikusi dira.

2.3.7. BERRIKUNTZA

Aipagarriak dira ondorengo helburuetan izan dugun garapena:

Kanpo dirulaguntzak areagotu berrikuntzari dagokionean. 24/25 ikasturtean, dirulaguntzen bidez lortutako baliabideak nabarmen handitu dira, guztira 359.035 €-koak izan direlarik. Aipatzekoak:

- TKNKA: VRTRAIN proiektua, Nazaret zentroarekin elkarlanean: 25.040 €.
- Nodo fabrikazio aurreratua: Juanjo Igarzabalek parte hartuta: 9.730 €.
- Ekipamendu deialdia (2. eremua): Fabrikazio aditiboari lotutako ekipamendua (mixer eta labe extrusorea) erosteko: 150.000 €.
- MEFP: 4 proiektu onartu dira datozen bi ikasturteetarako:
- Robotika kolaboratiboaren ingurukoa: 50.000 €
- Taller Inteligente: 33.333 €
- Soldadura Cobotizada: 50.000 €
- Diseinu eta Fabrikazio Aditiboa (titaniozko protesiak): 35.932 €
- Ekintzailetza Gela: dirulaguntza: 5.000 €.

Bestalde, aurkeztutako hainbat proposamen ez dira onartu (adib. Desafío en Construcción Metálica 360: Del Diseño CAD al Producto Final con ULMA; ODOOrekin loturiko Kutxa Fundazioko eskaera; eta MU-rekin batera aurkeztutako ELKARTEK IM2MAG), baina etorkizunerako lan-ildo garrantzitsuak markatu dituzte.

Goierri Eskolaren IKT hausnarketa eta estrategia. IKTetan hausnarketa estrategikoak jarraipena izan du. Ekintza nagusiak:

- Control operacional aplikazioaren ordezkapenari dagokionez, ODOO ERP aztertzen eta ezartzen jarraitu da, baina momentuz ordezkapena ez da guztiz gauzatu.
- Goi mailako taldeetako ikasleek beraien PC propioak ekartzeko baldintzak sortu dira, azpiegiturak egokituz.
- Business Central erabat ezarri da, eta Power BI bidezko dashboard-en lanketarekin aurrera egin da.
- Nominen kudeaketarako software berria ezartzeko prozesua martxan jarri da.
- Goierri Eskolaren teknologia plana eta garapena. 20/21ean definitutako plan teknologikoaren azken ikasturtea izan da 24/25a. Eguneraketa egin da, eta digitalizazioa zeharkako ardatz bezala gehitu da, ezagutza esparru guztietan eragina duena.

Plan honen garapenerako behar diren funtsen estimazioa 1.472.519 €-koa da.

3. BEZEROENGANAKO EMAITZAK

3.1. HEZKUNTZA ARAUTUA

3.1.1. MATRIKULAZIOAREN EMAITZAK

Matrikulazioa itxirik, aurreikusitako talde guztiak eratu ziren.

3.1.2. HEZKUNTZA ARAUTUKO EMAITZAK

Ondorengo taulak, hezkuntza arautuko talde bakoitzean lorturiko emaitzak bildu ditu:

	TALDEA	Matrikulatuta	Titulatu ala kurtsoz pasa	Errepikatu	BAJA	Promozionatuen %-a
BATXI	1BT1	33	33	0	0	100,0%
	1BT2	30	27	3	0	90,0%
	1BT3	15	10	3	0	66,7%
	1BT3- Orokorra	14	13	1	0	92,9%
	2BT1	29	26	3	0	89,7%
	2BT2	29	27	2	0	93,1%
	2BT3	13	10	3	1	76,9%
	2BT3- Orokorra	16	15	1	0	93,8%
HLH	1ELM1	15	12	2	0	80,0%
	2ELM1	12	10	1	1	#¡REF!
	1KA1	14	10	3	0	71,4%
	2KA1	9	8	1	0	#¡REF!
	1MEK1	14	11	1	0	78,6%
	2MEK1	13	7	4	4	#¡REF!
	1SU1	14	8	4	1	57,1%
	2SU1	9	6	3	0	#¡REF!
EM	1SG2	24	18	5	0	75,0%
	2SG2	31	28	3	0	90,3%
	1ME2	25	19	6	2	76,0%
	2ME2	22	22	0	0	100,0%
	1MK2	25	24	1	0	96,0%
	2MK2	21	13	0	0	61,9%
	1PA2	19	10	8	7	52,6%
	2PA2	8	7	1	0	87,5%

	TALDEA	Matrikulatuta	Titulatu ala kurtsoz pasa	Errepikatu	BAJA	Promozionatuen %-a
GM	1DF3	19	19	0	0	100,0%
	2DF3	24	24	0	0	100,0%
	1FM3A	24	17	6	2	70,8%
	2FM3A	21	21	0	0	100,0%
	1FM3B	24	17	6	0	70,8%
	2FM3B	20	19	1	0	95,0%
	1MK3	25	24	1	1	96,0%
	2MK3	27	27	0	0	100,0%
	1AR3	24	17	7	1	70,8%
	2AR3	26	24	2	0	92,3%
	1AF3	24	18	6	0	75,0%
	2AF3	20	16	0	0	80,0%
	1MT3	18	15	3	0	83,3%
	2MT3	17	13	4	0	76,5%
	1MG3	20	16	4	1	80,0%
	2MG3	14	12	2	0	85,7%
EI	1TM4	7	6	1	0	85,7%

3.1.3. GREBAK

Bi greba egun izan dira 24/25 ikasturtean zehar:

URRIAK 11 : PAU PROBAREN INFORMAZIO EZA						
DEAIALDI MOTA			ETENALDIA: EGUN OSOKOA			
BOZKETA EGUNA:		Urriak 10				
	BAI	EZ	TXURI	BALIOGABEA	DESBINKULATUAK	PARTE HARTU EZ DUTENAK
GUZTIRA	618	50	18	2	3	66
DESBINKULATUAK DAUDEN TALDEAK			1BT1 / 2FM3B / 2DF3	PARTE HARTU EZ DUTEN TALDEAK		2MK3 / 2AR3

MARTXOAK 13: ASKI DA. LH lege berria eta UNIBERTSITATEA											
DEAIALDI MOTA			ETENALDIA: EGUN OSOKOA								
BOZKETA EGUNA:		Martxoak 12									
	BAI	EZ	TXURI	BALIOGABEA	DESBINKULATUAK	PARTE HARTU EZ DUTENAK					
GUZTIRA	560	1	9	1	103	96					
DESBINKULATUAK DAUDEN TALDEAK			1ME2	2ME2	1FM3B	1DF3	2DF3	1MT3	1AR3	2AR3	2MK3


3.1.4. SATISFAZIOA

3.1.4.1. HEZKUNTZA ARAUTUKO IKASLEEN SATISFAZIOA

Laburpen modura, ondorengo taulak hezkuntza arautuko ikasleei egindako inkestaren ondorioz, hobekien puntuaturiko 5 atalak eta lehentasun handieneko 5 hobetze arloak bildu ditu.

Hobekuntza Arloak	03.- Eskolatik eskolaz kanpoko ekintzei buruzko (kirolak, ekintza kulturalak,...) informazioa jasotzen dut.	3,45
	10.- Salmenta makinei buruzko satisfazioa.	3,70
	07.- Eskolak atzerrian praktikak egiteko ematen didan aukera egokia da.	3,79
	09.- Iradokizunei emandako trataera egokia da.	3,80
	04.- Eskolak emandako lan-poltsa eta langai zerbitzuak egokiak dira.	3,81
Alde Sendoak	13.- Idazkaritza zerbitzua (harrera, efizientzia,...) egokia da.	4,16
	12.- Liburutegi zerbitzua egokia da.	4,05
	11.- Fotokopia zerbitzua (harrera, efizientzia,...) egokia da.	4,02
	19.- Eskola honetan zure ikasketak amaituz gero, lan bat aurkitzeko izango dituzun aukerak baloratu (soilik lanbide heziketa).	3,99
	17.- Aparkalekuak egokiak dira.	3,96

Hezkuntza arautuko ikasleen satisfazioa ikastetxe honetan ikasteagatik 3,93/5 izan da eta satisfazio orokorra (item guztien batezbestekoa) 3.89/5 izan da, honako banaketa eman delarik:




Bestetik, eta ikuspegi pedagogikoari dagokionez, hiruhilero burututako inkestetan, honako hauek izan dira lorturiko emaitzak (3 hiruhileroko batezbestekoak):

1, Eskolan zailtasunen bat baldin badut, badut norengana jo,	4,08
2, Eskolatik lan eta profesional munduaz informazioa jasotzen dut	3,96
3, Eskolatik arlo akademikoaz (ordutegiak, azterketak, notak,...) nahikoa informazio jasotzen dut,	4,04
4, Gure eskolan egiten diren eskolaz kanpoko aktibitateak (enpresetara bisitak, kirola,...) zer iruditzen zaizkizu?	3,89
5, Eskola honen exijentzi mailaz zera uste dut	
6, Gelan daukagun ikas giroa	4,04
7, Ikasleen arteko harremana gelan,	4,19
8, Ikasleen arteko harremana eskolan	4,13
9, Eskola barruko garbitasuna	4,08
10, Eskolaz kanpoko garbitasuna	3,99
11, Eskolako zerbitzu informatikoarekiko nire satisfazioa	3,7
12, Zure aspirazio akademiko eta profesionala Eskolak asetzen du?	
13, Tutoritzarekiko satisfazioa,	4,05
14, Gaien artean loturarik badago,	4,1

3.1.4.2. FAMILIEN SATISFAZIOA

Soilik 18 urtez beherako gurasoei pasatzen zaie inkesta. Microsoft Forms erabiliz lortu dira hauek. Guztira 113 familiak bete dute.

Beraien batez besteko satisfazioa **4,24/5**-etik eta Eskolaren balorazio globala **4,35/5** izan delarik. Bestetik, Eskola gomendatuko luketen gurasoen ehunekoa **%97,27**-koa da. Inkestako atal bakoitzeko emaitzak honakoak dira:



3.1.5. LANEAN TXERTATZEA

24/25 ikasturtean, Lanbide Heziketako ikasketak amaitutako ikasleen kopurua 224-koa izan da,. Aurreko ikasturtearekiko konparaketa egitean datuak antzekoak direla ikusi daiteke. Laneratze kopurua zerbait gutxitu egin da. Ikasten jarraituko dutenen kopurua haunditu da. Portzentaietan emanda , % 41,52 lanean, % 48,21 ikasten eta % 10,27 langabezia.

2024-25 IKASTURTEA				
ZIKLOA	IKASTEN	LANEAN	LANGABEZIAN EDO EZINEAN	GUZTIRA
AF3	2	14	2	18
DF3	7	15	2	24
FM3(A)	4	14	4	22
FM3(B)	3	12	3	18
MT3	4	6	4	14
MK3	9	17	1	27
AR3	7	12	5	24
MK2	18	1	0	19
ME2	22	0	0	22
SG2	26	1	1	28
PA2	6	1	1	8
GUZTIRA	108	93	23	224
	48,21%	41,52%	10,27%	

3.2. HEZKUNTZA EZ ARAUTUA

3.2.1. KURTSOEN KOPURUA

2024-25 kurtsoan denetara 41 ikastaro eman ziren, kurtso hauetan 352 ikasle izan zirelarik eta guzti honek 2732 ordu suposatu du. 1.2. puntuko taulak gure eskaintzako kurtsoak eta haien gauzatzea jaso badu ere, ondorengo taulak haiez gain enpresentzako neurrira egindako kurtsoak eta Lanerako Hezkuntzari loturikoak jaso ditu.

ENPRESA IKASTAROAK 2024/2025	Orduak	
Calidad en soldadura (Spanset, S.A.)	15	24/09/03 - 24/09/05
Renovación Ultrasonidos nivel 2 (CAF, S.A.)	20	24/09/23 - 24/09/26
Excel nivel medio (Orkli, S.Coop.)	15	24/09/23 - 24/10/14
Recertificación de Inspección visual (Talleres Hadimek, S.L.)	3	24/10/16 - 24/10/16
Calidad en soldaduras. Ensayos mecánicos (CAF, S.A.)	8	24/10/23 - 24/10/24
Programación básica de TIA Portal (CAF, S.A.)	25	24/11/04 - 24/11/15
Renovación de Ultrasonidos (Cadinox, S.A.)	8	24/11/11 - 24/11/14
Inspección Visual nivel 2 acceso directo (GHB Energias renovables, S.L.)	40	24/11/25 - 24/12/12
Soldadura TIG (Fluitecnik, S.A.)	6	24/11/27 - 24/11/28
END por Partículas Magnéticas en soldadura (Yugo electromagnético)(Jaso equipos de obras y construcciones, S.L.)	10	24/12/03 - 24/12/04
Soldadura TIG (Industrias Barga, S.L.U. – Soldadura Uskain, S.L.)	20	24/12/09 - 24/12/13
Diseño de soldaduras (Fluitecnik, S.A.)	3	24/12/18 - 24/12/18
Magnaflux (CIE Mecauto, S.A. – Industrias Amaya Telleria, S.A.U.)	20	25/01/27 - 25/01/31
Curso de Pintura (Forjas Irizar, S.L.U.)	13	25/02/05 - 25/03/05
Renovación de Líquidos Penetrantes nivel 2 (Sakana, S.Coop.)	4	25/03/24 - 25/03/24
Competencias de gestión (Irizar, S.Coop.)	12	25/04/01 - 25/04/10
Recertificación de Ultrasonidos (Talleres Hadimek, S.L.)	12	25/04/28 - 25/04/30
Renovación/recertificación Partículas Magnéticas nivel 2 (MT2) (CAF, S.A.)	20	25/05/05 - 25/05/08
Inspección Visual de estructuras soldadas (Ingeteam Indar Machines, S.A.)	12	25/06/13 - 25/06/20
Iniciación a la soldadura (Sakana, S.Coop.)	12	25/07/14 - 25/07/17
LANBIDE ETA BESTE IKASTAROAK 2024-2025		
NE24200115 IFCT45 COMPETENCIAS DIGITALES BÁSICAS	60	24/09/23 - 24/10/11
NE24200116 IFCT45 COMPETENCIAS DIGITALES BÁSICAS	60	24/10/28 - 24/11/18
NE24200119 ARG0002 AUTOCAD 2D	40	25/01/13 - 25/02/06
24201562 FCOV27 COMPETENCIAS CLAVE NIVEL PARA CERTIFICADOS DE PROFESIONALIDAD SIN IDIOMAS COMUNICACIÓN EN LENGUA CASTELLANA Y COMPETENCIA MATEMÁTICA	240	25/01/15 -25/03/24
24201565 FMEE0108 OPERACIONES AUXILIARES DE FABRICACIÓN MECÁNICA	440	25/01/29 - 25/06/10
24201563 FMEC0119 SOLDADURA POR ARCO BAJO GAS PROTECTOR CON ELECTRODO CONSUMIBLE, SOLDEO MIG/MAG	410	25/02/05 - 25/06/19


3.2.2. HEZKUNTZA EZ ARAUTUKO IKASLEEN SATISFAZIOA

Hezkuntza ez arautuko ikasleen satisfazioa **9,16/10**-ekiko izan da bataz bestean eta balio hau **9,56/10**-era igo da irakaslearekiko duten satisfazioari dagokionez.

4. PERTSONENGANAKO EMAITZAK

4.1. PERTSONEN SATISFAZIOA

Pertsonalari egindako inkestan satisfazio indize orokorra **4,26 / 5** izan zen, honako banaketarekin:



Ikastetxean lan egiteagatik satisfazio maila **4,4 / 5** izan zen. Hobekuntza arlo nagusiak honako hauek dira:

Arloa	Batezbestekoa
Nire betebeharrak burutzeko dudan denbora egokia da	3,34
Eskolako Internet, korreo konexioak egokiak dira.	3,42
Lan ordutegiak asetzen nau	3,86
Mantenimendu informatikoak asetzen nau.	3,88
Nire jardunari buruzko iruzkin eraikitzaileak eta orientaziorik jasotzen dut	3,92

Hobekien baloratutako gaiak, berriz, honako hauek dira:

Arloa	Batezbestekoa
Fotokopia zerbitzuak asetzen nau.	4,75
Idazkaritzak ematen didan zerbitzuak asetzen nau.	4,58
Eroso sentitzen naiz nire arduradunari nire iritzia ematen	4,57
Nire kudeaketa unitatean behar dudana laguntza jasotzen dut	4,55
Nire eginkizunen jabe eta arduradun sentitzen naiz.	4,54

Bestetik, honako bajak gertatu dira kurtsoan zehar:

Gaixotasuna		Amatasuna/Aitatasuna		Lan – istripuaz		Istripu ez-laborala	
22	1500 egun	4	378 egun	1	22 egun	0	0 egun

5. KONTSEILU SOZIALA ETA ESKOLA KONTSEILUA

Ikasturte honetan ez dugu Zentru Integratuaren Kontseilu sozialik izan (Batxilergoko Eskola Kontseilua bai). Kurtso hasieran, Kontseilu Soziala eratzeko prozedura martxan genuelarik, Lanbide Heziketako Sailburuordetzatik mezu bat jaso genuen, Itunpeko Ikastetxeen Kontseilu Soziala arautuko duen Dekretoa atera arte kontseilua ez eratzeko adieraziz.

Ikuskaritzarekin ere kontrastatu genuen eta Dekretuaren zai egoteko adierazi zigun ere.

Ikasturtean zehar Dekretu hori argitaratu ez denez, ez dugu Zentru Integratuaren Kontseilu Soziala izan.

Batxilergoari dagokionez, bilerak hauek izan dira:

Bileraren data	Hartutako erabakiak
2024ko Abenduaren 12a,	Gai ordena: 1. Aurreko bileraren akta onartu (akta atxikitzen da). 2. 23-24 Ikasturtearen Memoria aurkeztu. (Memoria atxikitzen da). 3. 2024-25 Urteko Planaren aurkezpena. 4. Mugikorren erabilera araudiaren onarpena. 5. 2025 ikasturteko kuotaren jeitsieraren onarpena. 6. Kudeaketa sistemari buruzko berriak. 7. Norberak lekarkeena.
2025eko maiatzaren 26a,	Gai ordena: 1. Aurreko bileraren akta onartu. 2. 2024-25 Kudeaketa Planaren itxiera eta 2025-28 Estrategia 3. Kudeaketa sistemari buruzko berriak. 4. 2025-26 ikasturteko egutegiaren onarpena. 5. 2025-26 ikasturteko kuoten onarpena. 6. Norberak lekarkeena.

6. ORIENTAZIO ZERBITZUA

2025/01/01etik 2025/09/08-rako enplegu zerbitzuaren datuak ondorengoak dira:

6.1 LANBIDE - KOLOKAZIOA

- CURRICULUM ALDAKETAK 783
- ESKAINTZAK 177
- LANPOSTUAK 221

6.2 ENPLEGU ORIENTAZIOKO EUSKAL ZERBITZUA (LANBIDE – ORIENTAZIOA)

- ORIENTAZIOKO EKINTZAK **386** (pertsona bakoitzarekin batezbesteko 3 elkarriketa) (banakako ekintzak).
- ORIENTAZIOKO EKINTZAK TALDEKA, guztira **14 tailer, 77 partehartzaile** (3 ordutako iraupenarekin). TALDEKA - TAILERRAK .

TAILERRAK	ENPLEGU ZENTRUA	ORIENTAZIOA	GUZTIRA	PARTEHARTZAILEAK	MEDIA
LAN BILAKETAN HEDABIDEAK, IKT ETA LAN BILAKETA, ENPLEGU WEB GUNEAK	2	2	4	20	5
CURRICULUM VITAE ZEIN DA EGOKIENA?	1	1	2	9	4-5
AUTOEZAGUTZA / DENBORAREN KUDEAKETA ENPLEGU-BILAKETAN	3	3	6	26	4
HEZIKETA AUKERAK ZIURTAGIRI PROFESIONALA.	1	1	2	13	6-7
Aukeraketa prozesu probak; elkarriketa pertsonala, talde dinamika test psikoteknikoak	1	1	2	10	5

6.3 ENPLEGU ZENTROA (2024/01/01 – 2027/09/26)

- PERTSONA KOPURUA: 1250

(pertsona batzuk behin baino gehiago etortzen dira)

6.4 INCORPORA PROGRAMA (2024/01/01 -2024/09/26)

➤ LANA BILATZEKO ZAILTASUNAK DITUEN PERTSONA KOPURUA	114
➤ LAN ESKAINTZAK	46
➤ LANPOSTUAK	51
➤ ENPRESETARA BISITAK	45

6.5 LEHENTASUNEZKO KOLEKTIBOAK LAN MUNDUAN SARTZEKO DITUZTEN ZAILTASUNENGATIK

- **ATZERRITARRAK;** bere kabuz etortzen direnak edota eskualdeko zenbait Udaletxetako gizarte zerbitzuetatik bidalitakoak. Talde ezberdinak dauzkagu.
 - Dokumentazioarekin, ikasketarik gabe eta lan esperientzia gutxirekin. Egoeran larrian bai arlo ekonomikoan baita arlo sozialean.
 - Ikasketa maila altua eta lan esperientziarekin, baina ikasketak homologatu gabe dauzkatenak.
 - Dokumentaziorik gabe.
- **UDALETXETAKO ZERBITZU SOZIALETATIK BIDERATUTAKO PERTSONAK:** udaletxetako gizarte laguntzaileen bitartez diru laguntzak jasotzen ari diren pertsonak, egoera larrian, ikasketa maila baxua eta lan esperientzia gutxi dute.
- **LANBIDE BEASAINDIK,** orientazioko ekintzak martxan jartzeko asmotan bideratutako pertsonak: Gehienbat “RGI eta PCV” laguntzak jasotzen dituzten pertsonak bideratu dizkigute. Egoera larrian dauden pertsonak dira, bai bere egoera ekonomikoarengatik, bai eta zailtasun handiak dituztelako lana bilatzeko garaian ere (ikasketa maila baxua, esperientzia bakarra kualifikazio gutxiko lanetan, teknologia berrietara egokitzeko zailtasun haundiekin...)
- **LANERAKO HEZIKETA EGITEN DUTENAK:** Langabetuei bideratutako ikastaroak egiten dituzten pertsonak, ikastaro hauek Lanbideren bitartez egiten dira eta behin heziketa bukatzen dutenean enplegu zerbitzura etortzen dira zein lan aukerak dituzten aztertzeko.
- **45 URTETIK GORAKO PERTSONAK:** kualifikazio gutxirekin eta bere bizitza osoan zehar enpresa batean lanean aritu direnak eta bapatean langabezia gelditu direnak, ez dakite nondik hasi lana bilatzen
- **LANGABEZIAN DENBORAN LUZEN DAUDEN EMAKUMEAK,** ikasketak dituzten emakumeak, baina urteak langabezia daramatenak bere familia zaintzen egon direlako eta orain lan merkatura bueltatu nahi dutenak
- **GAZTEAK IKASKETA MAILA BAJUAREKIN:** 30 urtetik beherako gazteak ikasketarik gabe edo oinarritzko ikasketekin, lana bilatzeko garaian zailtasun handiak dituzte.
- **GAZTEAK:** Kimika, Gizarte eta Humanitate zientzietan diplomadunak eta ikasketa horietan lizentziatutako pertsonak.

- **EMAKUMEAK:** ikasketarik gabe, lan esperientzia gutxirekin edo Goierri mailan gutxi eskatzen diren profilekin.
- **BERAIEN ENPRESETAN IZANDAKO KRISIAK BIDERATUTAKO PERTSONAK:** Bizitza guztian lanean egon direnak eta orain lanik gabe gelditu direnak: ERE, plantilla murrizketa, enpresen itxierak.

Bestetik, honako hauek ere hurbiltzen dira Enplegu Zerbitzura orientazio/lan bila:

- **HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA BUKATUTAKO IKASLEAK:** Behin ikasketak amaitzen dituztenean Enplegu Zerbitzura gerturatzen dira zein aukerak dituzten aztertzeko bai enplegu alorrean edota heziketa alorrean.
- **ZIKLOETAKO IKASLEAK:** Erdi mailako eta goi mailako zikloak bukatzen dituzten ikasleak bai Goierri Eskolan baita beste ikastetxeetan ikasitakoak. Behin zikloa amaitu eta gero, lanik aurkitzen ez dutenak Enplegu Zerbitzura gerturatzen dira zein aukerak dituzten aztertzeko.
- **GRADUKO INGENERITZA AMAITUTAKO IKASLEAK:** Ikasketak amaitzear daudenean Enplegu Zerbitzura etortzen dira zein aukerak dituzten aztertzeko bai heziketa atalean bai lan aukerak.